

“Orroitzen naiz...”

- ✓ Nagusien oroitzapenak azaltzen dira 'Dale recuerdos XIV'an
- ✓ Izpuran taularatuko da Didier Ruizek sortutako egitasmoa
- ✓ Euskaraz eta frantsesez mintzatuko dira protagonistak

Joseba Gorostiza

Estatu frantziarreko hamabi hiri desberdinetan eta 2004 urtean Hendaian gauzatu eta gero, Izpura herrian dagoen Faustin Bentaberri gelan ekoiztu eta eszenaratuko da *Dale recuerdos (Je pense à vous)* ikusgarria, agerrialdiko protagonistak Euskal Herriko Iparraldeko herri desberdinetan bizi diren zortzi adindun direlarik. Cie. des Hommes eta Baxe Nafarroako 'Scène de Pays' erakundeak elkarlanean sortu eta Didier Ruizek zuzentzen duen ezohiko ikuskizun honek, tokian tokiko zenbait bizilagun nagusien aspaldiko bizipenak, pasarteak eta istorio desberdinak jartzen ditu eszenatokian, guztiak ikuskizunena agertzen diren adinduek bizitakoak direlarik. Saioa Ipar Euskal Herrian gauzatzen denez, protagonistak euskaraz mintzatuko dira batzuetan eta frantsesez besteetan.

Didier Ruizen hamalagarren egitasmoa gauzatzeko ahaleginak urtarilean hasi zituzten, antzezleak ez diren 74 urtetik gorako adindunen bilaketarekin. Jarraian, hainbat elka-



©Bruno Vallet

OBRA: DALE RECUERDOS XIV (JE PENSE À VOUS). **INTERPRETEAK:** BEHE NAFARROAKO DONAPALEU, IRISARRI, BUSTINTZE-IRIBERRI, DONAZAHARRE, DONIBANE-GARAZI ETA BAIGORRI HERRI INGURUETAKO ZORTZI ADINDUN. **ARGITAPENA:** MAURICE FOUILHÉ. **ZUZENDARIA:** DIDIER RUIZ. **EKOIZPENEA:** CIE. DES HOMMES KONPAINIA, BAXE NAFARROAKO 'SCÈNE DE PAYS'. **IRAUPENA:** 75 MIN. **TOKIA:** FAUSTIN BENTABERRI GELA - IZPURA. **EGUNAK:** MARTXOAK 30 ETA 31. **ORDUA:** 21.00.

rizketa egin eta ikerketa prozesuari ekin zioten saioetan partaideen oroitzapenak, gaien arabera bildu zituzte-

larik. Ikuskizuneko protagonistak "hautzaroko kantuek edo dantzak, usain bereziak, lagunen izen zerren-

Protagonistas en foto.

La puesta en escena de *Dale recuerdos XIV (Je pense à vous)*, espectáculo que dirige Didier Ruiz, tiene como protagonistas a ocho septuagenarios y octogenarios de Iparralde que, sin tener ninguna formación teatral, cuentan algunas de las vivencias de su pasado, con referencias a las canciones y las danzas, a los olores y a los amigos de la infancia, así como a

las diferentes ocupaciones laborales, a los grandes miedos o otros temas que pueden resultar de interés para los espectadores. Además de las dos representaciones que se llevarán a cabo en la sala Faustin Bentaberri de la localidad bajonavarra de Izpura, esta coproducción de la *Compagnie des Hommes* y de la asociación 'Scène de Pays' de Nafarroa Beherea se completará con una exposición de

unas 25 fotografías tomadas por Bruno Vallet entre varios de los participantes de alguna de las 13 producciones anteriores de *Dale recuerdos* que han llevado a cabo en diferentes ciudades del Estado francés desde 1999, y que el año 2004 se realizó en Hendaia. Las instantáneas se exhibirán en la sala 'Le Vauban' de Donibane-Garazi desde el 5 de marzo hasta final de mes.

da, egindako lan desberdinen zerrenda, beldur handiak eta posible diren beste anitz gairen inguruan mintzatzeko aukera izan dute", Ruizekin batera lanean diharduen Maattittaren esanetan.

Donapaleu, Irisarri, Bustintze-Iriberrri, Donazarre, Donibane-Garazi eta Baigorri aldean bizi diren 70 eta 86 urte arteko gizon eta emakumeak emandako testigantzak, dokumental antzeko ikuskizuna osatzen dute, "gure nagusiak liburutegi, bideotegi eta musikategi antzekoak baitira", Maattittaren ustetan. Gainera, Nafarroa Beherean izango da hiri girotik kanpo egiten den lehen ekoizpena, berezitasun hori zuzendariari "interesgarria iduritzen baitzaitzaion, baita arrangura azkarrek (hizkuntza zein kultura mailan) dituen lurralde batean".

Tokiko historia

70 urtetik gorako bizilagunak aukeratzearen arrazoia "leku baten gauza anitz aldatu direlako eta ikuskizun honen bidez toki bateko historia ezagutarazten zaie hurrengo belaunaldi, nagusiek dituzten oroitzapenen bidez", Dale recuerdos XIVren ekoizpenean murgilduta izan den Maattittaren esanetan. "Sarritan, adinduek, zokoratuta izaten dira eta gure bizimoldean tokirik ez dutenez, mintzatzeko aukera eman nahi izan ditugu, belaunaldi desberdinen arteko komunikazioa eragiteko", gaineratu



©Bruno Vallet

du Maattittak.

"Orain dela 70 urte, ez zegoen autorik, ez telebistarik ezta argi indarririk ere eta adinduak dira aldaketa guzti horiek bizi izan dituzten pertsonak". Ondare hori ez galtzeko asmoz bereziki gazteei zein 40-45 urte inguruko helduei zuzendutako ikuskizun egokia dela uste du Maattittak, nahiz eta alde aurretik egindako ekoizpenean urria izan den adinez aurrera doazen ikusleen presentzia.

Izpuran eszenaratuko den Dale recuerdos XIV (je pense á vous) ikuskizuna Baxe Nafarroako 'Scène de Pays' erakundeak bultzatutako 'Mémorie' egitasmo hirukoitzaren barne kokatzen da. Théâtre des Chimères konpainiaren Mami Mé-

morie antzezanaren emanaldiarekin hasitako ekitaldiak, Didier Ruizek zuzentzen duen ikuskizunarekin izango dute jarraipena eta amaiera emateko L'enfant sur la montagne antzeztuko du Cie. Anamorphose konpainiak maiatzean Zuberoako Dominixine eta Nafarroa Beherako Armendaritz herrietan.

Faustin Bentaberri gelan iragarritako bi saioak egin eta gero Parisko iparraldean dagoen Creil hirian burutuko du beste ekitaldi bat, hamabosgarrena hain zuzen, Dale recuerdos XVI.a, aidiz, Atlantikoa zeharkatu eta Txilen burutuko delarik. Bi hitzordu horiek amaitu ondoren, posible da Ruizek beste bi ekoizpen egitea, Libanon bata eta Jerusalem beste. ■■

GERNIKA-LUMO

GERNIKA KULTUR ETXEA Foru Plaza - 2 • LIZEO ANTZOKIA 8 de enero - 4 • ☎ 946 270 201 martxoa - marzo

3	sábado zapátua	20.15etan eta 22.30ean LIZEO ANTZOKIAN 'Ama, quiero ser Lehendakari' GLU-GLU Producciones
5	lunes astelehena	11.30etan LIZEO ANTZOKIAN 'Colas Magoa' Cia BELATRIX
9	viernes barikua	20.00etan ELAI ALAI ARETOAN 'Tú vales mucho nena' Katiloxu Mundakako Emakumeen Elkarte
16	viernes barikua	20.30etan LIZEO ANTZOKIAN 'Haize Ohialak' Pello Ramirez (kontzertua)
17	sábado zapátua	17.00etan LIZEO ANTZOKIAN 'Haur kabareta' Agerre Teatroa
23	viernes barikua	20.30etan LIZEO ANTZOKIAN 'Anje Dualde eta Niko Etxart' (kantaldia) Korrika Kulturala
24	sábado zapátua	19.30etan LIZEO ANTZOKIAN 'Hartza Iguzki' Errobiko Kaskarotak
31	sábado zapátua	20.30etan LIZEO ANTZOKIAN 'Artea' TXALO S.L.

ERROBIKO KASKAROTAK 'Hartza Iguzki'